

DEIALDIA, OLAZTIKO UDALEKO LUDOTEKAKO MONITORE IZATEKO LANPOSTU BAT, EUSKARAZ JAKITEKO BETEBEHARRAREKIN (C1), OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

OINARRIAK:

1— Deialdiaren xedea eta arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Olaztiko ludotekako monitore izateko lanpostua, C mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez aldi baterako betetzea. Lanpostuak euskara ezagutza betekizuna du, lan-araubidekoa da eta lanaldi partzialekoa.

Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2.d) artikulua arabera gauzatuko da prozedura, eta, horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzura bidaliko da enplegu-eskaintza, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileen edo enplegu-hobekuntzako eskatzaileen zerrenda eskatuz Altsasuko Enplegu Agentziari. Era berean, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta ezarritako epearen barruan eskabideak eta eskatutako agiriak aurkezten dituzten pertsona guztiak onartu ahal izango dira hautaketa-prozesuan. Hautatutako pertsonak, halaber, Udan euskaraz programaren begiraleari eta kanpaina horren koordinazio-laguntzaileari dagozkien eginkizunak beteko ditu, Kultura, Haur eta Gazteen teknikari eta koordinatzailearen agindupean.

1.2.- Lanaldia partziala izango da (% 50), eta hilean zehar aldatu ahal izango da ludotekan eta udan euskaraz kanpaina sor daitezkeen beharrei erantzuteko.

1.3.- Lanpostuak 40.5 zenbakia dauka Olaztiko Udaleko Plantilla Organikoan, eta Kultura, Haur eta Gazteen Alorrari atxikita dago.

1.4. Lanpostuaren ordainsariak izango dira Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan C mailako lanpostuetarako oro har ezarritakoak, baita Ordainsariei buruzko Behin-behineko Erregelamenduari buruzko uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuan ezarritakoak ere, eta ordainsari osagarriak, halakorik balego, aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezartzen badira eta plantilla organikoan zehazten badira.

Bi hilabeteko probaldia izango da, eta horretan Udalak kontratua deuseztu edo desegiten ahalko du, baldin eta denbora horretan Udalari iruditzen bazaio lanpostuaren zereginak ez direla berak nahi bezala bete".

1.5.- Era berean, deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat eratzea hautapen prozeduran lanposturik lortzen ez duten izangaiekin, 7 zenbakidun oinarrian ezarritakoarekin bat, lanpostua aldi baterako betetzeko, zerbitzuan sortzen diren beharren arabera.

Deialdiaren atal honen bidez egiten diren aldi baterako kontratazioetarako ere bi hilabeteko probaldia ezartzen da, eta epe horretan edozein alderdik hutsaltzen ahalko du kontratua.

1.6. Lanpostua aldi baterako betetzeko izendatutako pertsonak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

I.- Ludoteka antolatu eta funtzionatzeko eginkizunak:

- a- Ludotekako ekintzen plangintza eta programazioa: helburuak, jomugak, metodologiak, jarduerak eta ebaluazioa.
- b-Administrazio eginkizuna eta kudeatzekoa: fitxen, erregistroen eta dokumentuen multzoa idaztea, kontabilitatea eta finantza-kudeaketa eramatea, bai eta jostailuen eta joko-elementuak.
- c- Koordinazio, informazio eta publizitate eginkizunak: beste ludoteka batzuekin, taldeekin, entitateekin eta komunitateko eragileekin harremanak izatea. Behar diren erakundeei jardueren berri ematea eta oro har horiek zabaltzea.
- d- Ludotekaren eta joko-elementuen mantentze-lanak eta kontrol eginkizunak.
- e- Era berean, koordinazio-bileretara joan beharko du Kultura, Haur eta Gazteen teknikariarekin, baita teknikari horrek adierazitako eta bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste bilera batzuetara ere.

II- Gizarte eta hezkuntza eginkizunak, besteak beste, hauek:

- a- Heziketa eginkizuna aisialdian: jolasa behatzea, erraztea, animatzea eta aberastea. Jostailua eta jostailuaren aldaera guztiak sustatzea. Jolaserako espazioak eta denborak bilatzea. Jolasaren kultura-aldaerak ezagutzea. Jarduera ludikoan eta ludotekaren kudeaketan protagonismoa haurrek bere gain hartzea bultzatzea.
- b- Eginkizun sozioekonomikoa: herritar guztiei, ahalik eta gehienei, jolaserako eta jostailurako sarbidea ahalbidetzea. Haurrak jolaserako duen eskubidea bete dadila aktiboki laguntzea. inolako bereizketarik egin gabe. Jostetan aritzearen ekonomizazioa eta ekologizazioa.
- c- Eginkizun komunitarioa: Jolasaren bidez eguneroko errealitatean herritarrek parte hartzeko giroa eta harreman komunitario sendoak sustatzeari dagozkion eginkizunak hartzen ditu barnean. Hartzaile berriak erakartzea eta haur-animazioa. Eguneroko errealitatean parte hartzea. Jolasaren animazioa eskolan, kolaborazioak. Familien eta helduen inplikazioa jolas-jardueran.

III- Udan Euskaraz kanpaina: Kanpainaren koordinazioko laguntzailea eta begiralea izatea. Kanpaina Kultura, haurtzaro eta gazteriako koordinatzailearen esku egongo da.

Aurrekoez gain, beste edozein eginkizun, lanpostuaren helburuarekin bat datorrena, lanpostuari dagozkion mailarekin eta eskumenekin bat.

1.7- Hautaprobak gainditurik deialdi honetan hautatzen den izangaia Gizarte Segurantzaren Sistema Orokorrean afiliatu, eta alta emango zaio.

Lanaldiaren araubidea lanaldi partzialekoa izango da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera. Hartara, baliteke astean zehar goizeko edo arratsaldeko txandak egin behar izatea.

1.8- Bat etorritz urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluekin, izangaiei jakinaraziko zaie edozein gorabehera, egintza edo errekurso, loturik dagoena deialdi honekin, oinarriekin edo betearazteko ematen diren egintzekin, eta, horretarako, argitaratuko da Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta bere egoitza elektronikoan.

1.9.- Argitaratzeko bide ofizialak Olaztiko Udalaren iragarki-taula eta egoitza elektronikoa izango dira.

2- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.- Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Europar Batasuneko estatu bateko herritarra izatea, edo, Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoko herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoko herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako Bigarren Mailako titulua edo horien baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

d) C1 mailako euskara-ezagutza izatea.

e) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez egotea.

g) Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluaren tipifikatutako sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako edozein

deliturengatik eta Zigor Kodearen II. liburuko VII bis tituluan tipifikatutako edozein gizaki-salerosketagatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

h) Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen aurrekari penalen ziurtagiri negatiboa izatea.

i) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren estatuko Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapenik edo kondena penalik ez dutela adierazteko.

j) Enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntzako eskatzaile gisa izena emanda egotea edozein enplegu-agentzian.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiko 7. idatz-zatian ezarritako epean eta moduan beharko dituzte frogatu probak gainditu eta lanpostua eskuratzen duten izangaiek. Eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean bete egin beharko dira aipatu baldintzak, baita hautapen prozedurak dirauen bitartean eta kontratazioa iritsi arte ere.

Izangaiek ez badu euskara-ezagutzarik eskabideak aurkezteko uneen, 6.2.6 oinarrian xedatutakoaren arabera egiaztatu ahal izango da, baldin eta eskabidean adierazi badu proba egin nahi duela hori egiaztatzeko; bestela, ezagutza hori baduela ulertuko da.

3. – Eskabideak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

3.1. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Deialdi honetan parte hartzeko eskabidea telematikoki egin beharko da nahitaez, Olazti/Olazagutiako Udalaren erregistro elektronikokoan (<https://sedeelectronica.olazti.es>), eskabide orokor baten bidez.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 7 egun baliodunekoa izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Lehenengo atalean deskribatutako eskabide orokorrari I. eranskina erantsi beharko zaio, behar bezala beteta, baita merezimenduen zerrenda ere, II. eranskineko ereduaren arabera.

Parte-hartzaileek %33ko desgaitasuna edo handiagoa badute, honako agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute hori egiaztatzeko:

a) IMSERSOk edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak luzatutako ziurtagiria.

b) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia.

4- Izangaiei onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Olaztiko alkate udalburuak ebazpena emango du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Udalaren iragarki oholean eta egoitza elektronikoan argitaratzeko aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek, behin-behineko zerrenda argitaratu ondoko hiru (3) egun baliodunen barrenean, erreklamazioak egiten ahalko dituzte eta okerrik egin badute, haiek zuzendu.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea amaiturik, eta aurkeztutakoak ebatzita, Olaztiko alkateak izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi eta ofizialtzat jotako komunikabideetan argitaratzeko aginduko du.

4.4. Baztertutako hautagairik ez badago, onartutako izangaien zerrenda onartu eta zuzenean argitaratuko da.

5- Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Joseba Vizuete Askargorta, Olaztiko Udaleko alkatea.
- 1. mahaikidea: Virginia Alonso Aparicio, Olaztiko Udaleko Kultura, Haur eta Gazteen teknikari eta koordinatzailea.
- 2. mahaikidea: Izendatzeke.
- 3. mahaikidea: Langileen ordezkari sindikal bat- Izendatzeke.
- Mahaikide-idazkaria: Olaztiko Udaleko idazkaria.

5.2.- Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.3.- Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balio izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez egon beharko dute bertan.

5.4. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, aipatu diren egoera horietakoren bat gertatzen denean (urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua).

5.5.-Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen afera guztiak.

5.6.- Epaimahaiak aholkulari adituak ekartzen ahal ditu, proba hauetarako nahiz guztietarako. Aholkulari horiek epaimahaia lagunduko dute, nork bere espezialitate teknikoan.

6- Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak:

6.1. Hautapen prozesua bi urratsetan gauzatuko da hurrenez hurren, lehenbizi oposizioaldia, eta, bigarren, leihaketaldia.

6.2- Oposizioaldia: Oposizioko ariketak hauek izango dira:

6.2.1-Lehen ariketa: Gehienez 20 puntu

Proba teorikoa. Test moduko 10 galdera erantzun beharko dira, idatziz, IV. eranskineko gaiei buruz. Zenbait erantzun emanen dira aukeran galdera bakoitzean, baina bakarra izango da zuzena. Ariketa honen iraupena ez da ordubetik gorakoa izango. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

6.2.2- Bigarren ariketa. Gehienez 50 puntu

Proba praktikoa. Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko bati idatziz erantzun beharko zaio.

Epaimahaiak erabakiko du zenbat denbora izango den ariketa hau egiteko, egin beharreko probaren arabera. Gehienez ere hiru ordu izango dira.

6.2.3-Oposizioko ariketak ez dira baztergarriak izango, baina lehenengo eta bigarren ariketen batura 35 puntukoa izan beharko da gutxienez prozesutik kanpo ez geratzeko.

6.2.4-. Ariketak plika sistemaren bidez egingo dira.

6.2.5.- Ariketen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak behin-behineko puntuazioak onartuko ditu bitarteko ofizialetan, eta 3 egun balioduneko epea emango du alegazioak aurkezteko.

Hiru egun balioduneko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, epaimahaiak behin betikotzat joko ditu behin-behineko emaitzak.

Alegazioak aurkezten badira, Auzitegiak gehiengoz ebatziko ditu aurkeztutako alegazioak, eta behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko ditu.

6.2.6- Oposizio-fasea amaituta, euskara-eskakizuna betetzen ez duten izangaiek hizkuntza-arloan eskumena duen erakundeak egin beharreko ahozko eta idatzizko proben bidez egiaztatu ahal izango dute.

Proba hori egiteko, ezinbestekoa izango da I. eranskinean dagokion laukitxoak markatzea.

Proba horiek baztertzailak izango dira bi modalitateetan, ahozkoan eta idatzian.

Epaimahaiak alde aurretik iragarriko du probak noiz egingo diren, deialdi honetan esleitutako bitartekoetan.

6.3- Lehiaketaldia: Oposizioaldia gainditu eta euskararen eskakizuna titulu bidez edo proben bidez egiaztatu duten izangaiek bakarrik parte hartu ahal izango dute fase honetan.

6.3.1.- II. eranskinean zerrendatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira. 5 egun balioduneko epean, eta epaimahaiak hala eskatuta, merezimendu horiek agiri bidez frogatu beharko dituzte oposizio-fasea gainditu dutenek bakarrik.

Egindako zerbitzuen atalean alegatutako merezimenduak Administrazio Publikoaren eta/edo zerbitzuak eman diren erakundeen ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira. Ziurtagiri horretan, egindako lana, emandako denbora eta ordukako iraupena jasoko dira.

6.3.2. Alegatu eta frogatutako merezimenduak deialdiaren III. eranskineko baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.3.3. Aipatu baremoa aplikatzeak eskatzen duen informazio guztia izan beharko dute agiriak. Ez dira kontatuko arrazoitzen ez diren merezimenduak. Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu lehiatzaileen merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak

6.3.4- Lehiaketaldiak 30 puntuko balorazioa izango du, gehienez ere. Deialdiko III. eranskinari jarraikiz banatuko dira puntuak, honako atal hauetan:

- a) Lan-esperientzia: 20 puntu, gehienez.
- b) Prestakuntza eta beste merezimendu batzuk: 10 puntu, gehienez.

6.3.5. Merezimenduen balorazioa amaitu ondoren, epaimahaiak bitarteko ofizialetan argitaratuko du behin-behineko emaitza, eta 3 egun balioduneko epea emango du alegazioak aurkezteko. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitzak automatikoki behin betikotzat joko dira, eta hautaketa-prozesu osoa argitaratuko da, puntuazio-ordenaren arabera.

Alegazioak aurkezten badira, epaimahaiak ebatziko du, eta behin betiko argitaratuko du, hautaketa-prozesu osoaren puntuazio-ordenaren araberrako emaitzarekin batera.

7.- Deiak eta lan-poltsa:

Hautaketa-prozesuaren emaitzak argitaratu ondoren, puntuaziorik altuena lortu duen pertsonari deituko zaio lanpostua betetzeko, Olaztiko Udaleko aldi baterako langileen kontratazio-zerrenden kudeaketa arautzen duen araudiaren arabera.

Kontratatu den pertsonak hiru eguneko epean egiaztatu beharko du Udalaren aurrean deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatutakoak/kautoak. 2.1 oinarriko g) eta h) idatz-zatiei dagokienez, interesdunak baimena eman ahal izango dio Udalari dokumentazio hori ofizioz eskatzeko. Baimena emateko, I. eranskinean horretarako adierazitako atala aipatuko da.

Deialdi honekin lotura estua duten premiak sortzen badira, lan-poltsako hautagai bati deituko zaio.

I. ERANSKINA

INSTANTZIA

.....jauna/andrea.....adinez nagusia
(NAN zk.:.....; jaioteguna:.....;
.....helbidea:.....
.....; telefonoa:.....;; posta
elektronikoa:

AITORTZEN DU / DECLARA QUE:

- ☐ Garaiz eta behar bezala betetzen ditu deialdian oinarrian Basean eskatzen diren baldintza guzti-guztiak / *Cumple en tiempo y forma, con todos y cada uno de los requisitos exigidos en la base 2 de la convocatoria.*
- ☐ Konpromisoa hartzen du kontrataziorako eskatzen didaten dokumentazio guztia aurkezteko, betiere kontratatua izateko proposatzen badute. / *Me comprometo a presentar toda la documentación exigida en caso de resultar propuesta-o para la contratación*
- ☐ Baimena ematen du Olaztiko Udalak ofizioz eska dezan 2.1 oinarriko g) eta h) atalei buruzko dokumentazioa. *2.1 oinarriko g) eta h) idatz-zatiei dagokienez, baimena ematen diot Udalari dokumentazio hori ofizioz eskatzeko.*
- ☐ Euskara proba egin nahi dut / *deseo realizar prueba de euskera*

Data / Fecha:

Sinadura / Firma:

II. ERANSKINA

MERITUEN ZERREDA

1. PRESTAKUNTZA:

Titulazio akademikoa. Amaiera-data. Titulua eman duen entitatea.	Puntuak
1-	
2-	
3-	
4-	
5-	
Guztira:	

2-. ESPERIENTZIA:

Entitatea	Egindako lana	Lan egindako denbora	Orduak guztira	Puntuak
1-				
2-				
3-				
4-				
5-				
			Guztira:	

.

III. ERANSKINA

BAREMAZIO IRIZPIDEAK

LEHIAKETALDIA (30 puntu gehienez)

Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango, eta bertan lortutako puntuazioa oposizio-faseari gehituko zaio (soilik gainditu dutenei). Behar bezala egiaztatutako merezimenduak baino ez dira baloratuko, baremo honen arabera:

1- PRESTAKUNTZA (gehienez 10 puntu) Titulazio Akademiko Ofizialak

- | | | |
|----|--|------------|
| 1- | Animazio soziokultural eta turistikoko teknikaria | 5 puntu |
| 2- | Aisialdiko Zuzendaritza | 2 puntu |
| 3- | Pedagogia, Psikologia eta Lehen Hezkuntzako unibertsitate-titulua | 1,5 puntu |
| 4- | Aisialdiko begiralea | 0,5 puntu |
| 5- | Prestakuntza-ikastaroak: gehienez puntu 1. Jokoekin, astialdiarekin, genero-berdintasunarekin, dibertsitate funtzionalarekin eta abarrekin lotutako ikastaroak, ikastaro bakoitzeko, gutxienez, 10 orduko 0,5 puntu. Orduak 10 baino gutxiago badira, ikastaro bakoitzean egindako ordu-kopuruari proportzionalki dagokion puntuazioa emango da. | 1,00 puntu |

2.- EMANDAKO ZERBITZUAK (gehienez 20 puntu)

- 4-12 urte bitarteko adingabeekin egindako lana baloratuko da.

- Udal ludoteka edo ludoteka publiko batean egindako ludoteka-lana: puntu 1 lan egindako 80 orduko.

- Ludoteka pribatu batean egindako ludoteka-lana: 0,50 puntu 80 orduko.

- Erakunde publiko edota pribatu batean Aisialdi eta Denbora Libreko zuzendaritzan izandako esperientzia: 0,25 puntu lan egindako 80 orduko.

-Ludotekako laguntzailea erakunde publiko edota pribatu batean: 0,1 puntu 80 orduko.

- Erakunde publiko edota pribatu batean aisialdiko eta denbora libreko monitore gisa izandako esperientzia: 0,02 puntu 80 orduko.

Orduak 80 baino gutxiago badira, ikastaro bakoitzean egindako ordu-kopuruari proportzionalki dagokion puntuazioa emango da.

Zerbitzuak zein administrazio edo enpresatan eman diren, haiek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatutako esperientzia baino ez da baloratuko. Ziurtagiri horretan egindako lana, emandako denbora eta ordukako iraupena jasoko dira.

Ez da baloratuko boluntariora-lanetan edo ordaindu gabeko edo lanbide-harremanik ez duten lanetan izandako esperientzia.

IV. ERANSKINA

OPOSIZIOALDIRAKO GAIAK

- 1- 6/1990 FORU LEGEA, UZTAILAREN 2KOA, NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOARI BURUZKOA I. TITULUA, I. KAPITULUA
- 2- 12/2022 FORU LEGEA, MAIATZAREN 11KOA, HAUR ETA NERABEEI ARRETA ETA BABESA EMAN ETA HAIEN FAMILIAK, ESKUBIDEAK ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKOA.
- 3- 39/2015 LEGEA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKOA. ATARIKO TITULUA, ETA I. TITULUA , I. KAPITULUA
- 4- OLAZTIKO UDALA. UDAL-ORGANOAK. ALKATETZA. OSOKO BILKURA. UDAL-ORGANOEN ESKUMENAK ETA ESKURANTZAK.
- 5- AISIALDIKO HEZKUNTZAREN OINARRIAK. AISIA ETA DENBORA LIBREA.
- 6.- LUDOTEKAK: DEFINIZIOA, HELBURUAK ETA FUNTZIOAK.
- 7- LUDOTEKARIAREN LANBIDE-PROFILA: FUNTZIOAK ETA HELBURUAK.
- 8.- LAU URTETIK HAMABIRA BITARTEKO HAURREN BEHARRAK ETA GARAPEN EBOLUTIBOA.
- 9.- JOLASAREN HEZKUNTZA-FUNTZIOA. JOKO MOTAK. JOSTAILU MOTAK ETA JOLASAREN ELEMENTUAK.
- 10- AISIALDIKO PLANGINTZA-PROZESUA: ZEHAZTAPEN-MAILAK (PLANA, PROGRAMA ETA PROIEKTUA) ETA FASEAK.